


LITERATURA • Booker Prize saridun berria

6

Hego Afrikako 'zuri liberala'

John Michael Coetzee, 'apartheid' pean sorturiko idazlea



Dusklands (1974) izan zen Coetzeeren lehen nobela. *In the heart of the country* (1977), *Waiting for the barbarians* (1980), *Life and Time of Michael K.* (1983), *Foe* (1986), *Age of Iron* (1990), *The masters of Petersburg* (1994), *Boyhood* bera eta *Disgrace* (1999) saritu berria eman ditu ondotik.

Fikzioa eta saiakera

Fikzioaz gain, saiakera ere landu izan du idazle hego afrikarrak: *White Writing: On the culture of letters in South Africa* (1988) eta *Giving Offense: Essays on Censorship* (1996) eman ditu orain artean. Lehenengoan, II. Mundu Gerraz geroztik Hego Afrikako idazle zurien literatura aztertu zuen; eta bigarrenengoan, zentsuraren inguruan aritu zen, ez hainbeste zentsura politika jakin batzuek, beren ondorio psikologiko eta moralez baizik. Ondorio horiek zentsore zein zentsuratuengan aztertu nahi izan zituen.

Hego afrikar idazlea ingelesezko literatur lanentzako sari nagusiaren jabe egin zen joan den astean, 'Disgrace' nobelari esker. Booker Prize saria bi aldiz eskuratu duen lehen egilea da.

Amagoia Iban • Donostia

JOHN MICHAEL COETZEEK (Cape Town, 1940) *The life & times of Michael K.* lanarekin irabazi zuen lehen aldiz Booker Prize ospetsua. 1983a zen, eta orduan nahikoa ezezaguna baldin bazen nazioartean, ezin halakorik esan orain, ingelesezko literatur sari nagusia bigarren aldiz irabazi duenean. Hogeitik gora hizkuntzatan irakur daitezke egun bere lanak. Hainbat sariren laguntza ere izan du bere

lana ezagutarateko: CNA Saria (Hego Afrikako literatur sari nagusia), Etranger Femina Saria, Jerusalem Saria... Suediako Akademiaren literatur Nobel saria irabazteko hautagaien zerrendan agertu ohi da, gainera, azken urteetan.

Sari horiek guztiak jaso dituen idazleak duela mende laurden eman zuen argitara bere lehen lana, *Dusklands*. Ordurako jada literatura irakasle zen Cape Towngo Unibertsitatean, eta halaxe jarraitzen du egun ere. Aita afrika-

nerra eta ama alemaniar jatorrikoa izan arren, ingelesez idatzi izan ditu Coetseek bere nobela eta saiakerak. *Boyhood* nobela autobiografikoan, hizkuntzekiko erakusten duen miresmenaren haurtzaroko iturriak azaltzen ditu. Nahiz eta abizen afrikanerra izan, «ingeles» moduan identifikatzen du bere burua, afrikaans hizkuntza primeran hitz egiteko gai izan arren. *Boyhood*-eko protagonista bi hizkuntza komunitetako kide da, baina bietatik kanpo sentitzen da. Hori ez da, hala ere, liburu horretako Coetzee ulertzeko argibide bakarra. Aita arbuiatu eta ama miretsi egiten zuen. *Apartheid*-ak ezarritako egoeraren barneratzea gero eta handiagoa izan zuen. Literaturan murgildu zen... Horri guztiari erantzuteko, granja giroari atxiki zitzaion nonbaiteko partaide sentitzeko.

Distantzia eta egonezina

Bizitzaren ikuspegi hori bere lan guztietan topa daiteke, neurri txiki zein handiagotan. Nahiz eta itxuraz bere lan bakoitza erabat diferentziatua izan, guztietan ageri da idazlea barne doinu neurtu batez. Muturreko egoerak hartu, distan-

tzia ezarri eurekiko, eta errealtate mugikor baten isla ezberdinak agertzen ditu. Coetzeeren nobeletan bizitzak ezaugarri exajeratuak ditu, baina harrigarriki, gertakizun muturreko horiek lasaitasun handiz gertatzen dira, izuikara eta malenkonia kutsu batez bustita.

Kolonialismo eta inperialismo inguru moderno batetik —bati buruz— idazten du Coetseek. Horrezaz gain, Europako literatur tradizioarekiko harreman nabarmena erakusten du: Daniel Defoe-ren *Robinson Crusoe*-ren berrirakurketa bat egin zuen *Foe*-rekin; *The masters of Petersburg*-en Dos-toievskiren bizitza du oinarri...

Hego afrikar idazlearen lanetan beti agertu izan da hizkuntzak arraza ezberdinetako komunitateen artean sor ditzakeen mugak aztertzeke grina ere —postestrukturalismoan berezituriko hizkuntzalaria da—. Arraza eta botere politikoari buruzko eztabaidetan sartzeko prest beti, «zuri liberal» moduan ageri du bere burua, Hego Afrikako egoera sozial eta politikoaren salaketa sarritan egin izan duena, *apartheid* eta inperialismo egoeraren ondorio direla adieraziz.

Es'kia Mphahlele, Nadine Gordimer, Bessie Head, Dennis Brutus eta Miriam Tlaliren garai eta kezakide izan da arlo horretan, nahiz eta egile bakoitza neurri eta maila ezberdinetan aritu.

ITSU-ITSUAN

ITSU-ITSUAN • ITSU-ITSUAN

Musika • Gaskoi eta afrikar doinuak

Egiako Kultur Etxean azaroaren 11n

Christian Vieussens gaskoi musikaren ordezkari ospetsua da. Udaberrian Senegalera jo zuen bere taldekideekin, hango musikariak ezagutzeko. Harreman haien fruitua da ostegunean bi herrialdeotako musikariek eskainiko duten emanaldia. 20:00etatik aurrera.

Dantza • Gelabert-Azzopardi konpainia

Baionako Antzokian azaroaren 12an

Lydia Azzopardi eta Cesc Gelaberten konpainiak *Zumzum-Ka* ikusgarria taularatuko du datorren ostiralean Baionan. Zazpi dantzari arituko dira, 21:00etatik aurrera, mundu errearen eta ametsen arteko mugak hautsi nahi dituen koreografia bati jarraikiz.

Txotxongiloak • Nazioarteko Jaialdia

Bilboko hainbat gunetan azaroaren 21a arte

Atzo hasi zen Bilbon XVIII. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia. 25 obra eskainiko dira bertan —Bilborock, El Carmen eta Barrainkua aretoetan eta Bizkaia enparantzan—hilaren 21a arte. Obretako asko, atzerriko konpainiek emanak (Argentina, Kuba, Mexiko, Espainia...).